



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiak, Lutxanako oinezkoen tunelakaz paraleloan joango dan gainazaleko igarobidea zabaltzearen alde

Bilbon, 2013ko maiatzaren 31n.

Bizkaiko Ganberan akordioa lortu da, Lutxanako tunelen arazoari emon beharreko konponbidea arintzeko. Talde guztiak, azken urtean hainbat sexu erasoren kokaleku izan diran eta gatazka politikoa sortu daben polemikaz betetako lur azpiko tunel horreen alternatiba martxan jartearen alde agertu dira, bakotxa bere erritmoan. Konponbiderako, beharrezkoa izango da Foru Aldundiak eta Barakaldoko Udalak, Lutxana auzoa eta Barakaldoko erdiunea lotuko dituan gainazaleko igarobide alternatiboa instalaletako gastau behar diran 145.000 euroak finantzatzea. Azkenean, Bildu Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena gaur goizean onartu dau Bizkaiko Batzar Nagusietako Herri Lan eta Garraioetako Batzordeak, PSE-ren aldeko botoakaz eta Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) eta Bizkaiko Popularrak (PP) taldeen abstentzinoagaz.

Proposamen horretan, koalizino abertzaleak, hasiera batean Foru Aldundiak tuneletako bideo-zaintzarako adostutako 100.000 euroko partida, Udalak, oinezkoentzako lur azpiko igarobideak ixteko alternatiba bat “hilebete bitan” instalaletako erabili daitela proposatu dau. Batzarretako gainerako taldeak puntu horren alde agertu dira, baina proiektu hori hain denpora laburrean egin ahal izanari buruzko zalantzak erakutsi ditue. “Hilebete bitan ia ezinezkoa da hori egitea”, adierazo dau Joaquín Colmenerok, Alderdi Sozialistak Batzordean dauen bozeroaleak. Proiektua “lau hilebetetan” egin ahal izango litzateke, esan dau Esther Martínezek (PP). EAJ-PNV-ko Jon Larreak adierazo dauenez, euren asmoa gainazaleko igarobidea “ahalik eta denporarik laburrenean” errealidade egitea da.

Saioan, batzarretako taldeek erabagi dabe, Barakaldoko Udalak lan horreek egiten dituan bitartean, Udaltzaingoa eta Ertzaintza izan daitezala Barakaldora errepidez sartzeko biderik garrantzitsuena gairaditzen daben tunelen segurtasuna zaintzearen arduradunak, eta tunel horreek gauez itxita egon daitezala, gaueko 22:30etatik goizeko 06:30ak arte.

BIZKAIBUSEKO GIDARIEK JASANDAKO ERASOAK

Batzordean, Socialistas Vascos Taldeak (PSE-EE) Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatu andrearen batzorderatzea eskatu dau, Bizkaibuseko Bilbo-Durango 3911 lineako gidariek jasandako erasoak eta antzeko beste gertakari batzuk azaldu daizan, halangoak “askotan” jazoten diralako —Taldea horren esanetan— Galdakao-Basauri-Metro 32. linean. Itziar Garamendik, Herri Lan eta Garraioetako



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Foru Diputatuak, “zuhurtasuna, neurritasuna eta gizartean inongo justifikaziorik ez dauen alarma ez sortzea” eskatu dau.

Aldundiko bozeroaleak adierazo dauenez, kaltetutakoen –gidarien– eretxiz be, gertakari bandaliko horreek “gertakari isolatuak” izan dira. Adierazo dauenez, Durangoko linean, gidariak eraso bi jasan ebezan barikuan, martxoaren 1ean, eta eraso biak pertsona berak eragindakoak izan ziran. Galdakao-Metro Basauri lineari jagokonez, Garamendik azaldu dauenez, zerbitzuko urte bi baino gehiagotan, 6 gertakari baino ez dira izan: kristalak apurtzeagaitik, langileei biraoak egiteagaitik edo pintadak egiteagaitik.

ALDUNDIAREN KONPROMISOA 3. LINEAGAZ

Amaitzeko, PSE-EEK eta Bilduk Aldundiari eskatu deusie azaldu dagiala zergaitik “gelditu” diran Metroaren 3. linea egiteko lanak —batzorderatze eskaera biak martiaren 11n aurkeztu ziran— eta zer eragin izango dauen geldialdi horrek datozan urteetako Aldundiaren aurrekontuetan.

Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatu andreak adierazo dauenez, lan horreek “ez dira inoiz gelditu, eta gitxiago oraindino finantzaketa falta egon dalako”. 2012. urtera arte, Foru Aldundiak, 3. linea (Matiko-Etxebarri) eregiteko lanei erantzuteko 2008an Eusko Jaurlaritzagak adostutako kopuruak ordaindu ditu, hau da, 153 milioi euroen erdia. Garamendiren berbetan, 2012. urtera arte, Foru Aldundiak 55,9 milioi euro ordaindu ditu, “egindako eta zertifikatutako” lanengaitik, Eusko Jaurlaritzak ordaindu dauen kopuru berbera.

Itziar Garamendik gogoratu dauenez, Aldundiak beste 11,5 milioi euroko konpromisoa hartu dau aurton obrak “ezuste barik” egin daitezkan. Horrez gain, Foru Aldundia datozan urteetarako hitzarmen barria prestetan ari da, eta hitzarmen barri hori “irailerako” prest egon daiteke, Nerea Ahedoren (EAJ-PNV) berbetan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales apoyan la apertura de un paso en superficie paralelo a los túneles peatonales de Lutxana

Bilbao, a 31 de mayo de 2013

Acuerdo en la cámara vizcaína para acelerar una solución a la problemática de los túneles de Lutxana. Todos los grupos junteros se han mostrado partidarios de impulsar, con diferentes ritmos, la puesta en marcha de una alternativa a estos subterráneos cargados de polémica después de ser refugio de varias agresiones sexuales en el último año y de provocar la confrontación política. La solución pasa por que la Diputación Foral y el Ayuntamiento de Barakaldo financien los 145.000 euros que costará la instalación de un paso alternativo en superficie entre el barrio de Lutxana y el centro urbano de la localidad fabril. Al final, la Proposición No de Norma presentada por Bildu ha sido aprobada esta mañana, en la Comisión de Obras Públicas y Transporte de las Juntas Generales, con el apoyo del PSE y la abstención de Nacionalistas Vascos (PNV) y Populares Vizcaínos (PP).

En ella, la coalición abertzale planteaba la necesidad de destinar los 100.000 euros inicialmente reservados por la Diputación Foral para instalar un servicio de videovigilancia, a que el Ayuntamiento de Barakaldo remate “en dos meses” una alternativa peatonal para clausurar los subterráneos. El resto de grupos junteros han apoyado la solución pero han discrepado sobre los tiempos. Han manifestado sus dudas a que tal proyecto se pueda acometer en tan poco espacio de tiempo. “En dos meses es prácticamente imposible llevarlo a cabo”, ha dicho Joaquín Colmenero, el portavoz socialista en la Comisión. El proyecto podría ejecutarse en “cuatro”, ha vaticinado Esther Martínez (PP). El PNV no ha querido marcar plazos. Espera que el paso en superficie pueda ser una realidad “en el menor tiempo posible”.

En la sesión, los grupos junteros han acordado también que mientras el Ayuntamiento de Barakaldo ejecuta estos trabajos, sean la Policía Municipal y la Ertzaintza quienes velen por la seguridad de unos túneles que salvan el principal acceso por carretera de la localidad fabril. Los subterráneos permanecerán cerrados por la noche, desde las 22.30 horas hasta las 6:30 h.

AGRESIONES A CONDUCTORES DE BIZKAIBUS

En la Comisión, el grupo Socialistas Vascos (PSE-EE) había solicitado la comparecencia de la diputada foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, para que explicara las últimas “agresiones” sufridas por conductores de Bizkaibus de la línea 3911 Bilbao-Durango y otros episodios similares que se repiten “con asiduidad” - según este grupo- en la línea 32 Galdakao-Basauri-Metro. La responsable foral ha



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

pedido “prudencia, medida y no generar alarma social, absolutamente injustificadas” con este asunto.

Garamendi ha manifestado que los propios afectados -los conductores- han considerado los incidentes vandálicos como “hechos aislados”. Ha señalado que en la línea de Durango se produjeron dos agresiones el viernes 1 de marzo a conductores de esta línea, protagonizados por la misma persona. En cuanto a la línea Galdakao-Metro Basauri, la diputada ha explicado que en más de dos años de servicio “solo” se han contabilizado 6 incidentes, entre los que ha citado roturas de lunas, insultos a los trabajadores o pintadas.

COMPROMISO FORAL CON LA LÍNEA 3

Por último, PSE-EE y Bildu buscaban que la Diputación mostrara su postura sobre lo que estos grupos consideraban “paralización” de la Línea 3 del suburbano –las dos peticiones de comparecencia llevaban fecha del 11 de marzo- y sobre la repercusión de esta decisión en los presupuestos forales de los próximos ejercicios.

La Diputada de Obras y Transportes ha dicho que estas obras “no se han paralizado en ningún momento, y menos aún por falta de financiación”. Hasta el año 2012, la Institución foral ha abonado las cantidades pactadas con el Gobierno Vasco en el año 2008 para hacer frente a las obras de construcción de la Línea 3 (Matiko-Etxebarri), es decir, la mitad de los 153 millones de euros. Hasta el año 2012, la Diputación había pagado, según Garamendi, 55,9 millones de euros por obras “ejecutadas y certificadas”, la misma cantidad que la aportada por el Gobierno Vasco.

Itziar Garamendi, ha recordado que la Diputación ha comprometido otros 11,5 millones de euros para el desarrollo de las obras durante este año para que las obras se desarrollen “sin contratiempos”, al mismo tiempo que la Institución foral trabaja para establecer un nuevo convenio para ejercicios posteriores, que podría estar preparado para septiembre, según Nerea Ahedo (PNV).